Xedapen Orokorrak

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA
KULTURA SAILA

4599

250/2010 DEKRETUA, irailaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren 2010eko ekitaldiko aurrekontuko 4511 «Egitura eta Babesa» Programan diru-sarrerak lortu direlaeta, 4513 «Kulturaren Sustapena» Programan 315.670 euroko kredituak gaitzen dituena.

2009ko abenduan lankidetza-hitzarmena sinatu zen Eusko Jaurlaritzaren eta UTE-Bilbao Bizkaia Kutxa, Gipuzkoa Donostia Kutxa eta Caja Vital Kutxa-Bono Cultura finantza-erakundearen artean; hitzarmen horren arabera, finantza-erakunde horrek laguntza emango zuen «Kultura Bonoa-Bono Cultura» Programa garatzen eta sustatzen. Horrela bultzatu nahi zen arte- eta kultura-ekoizpenaren merkatua, 2009-2010eko Gabonetan EAEko kultura-produktuak sustatuz.

Hitzarmenaren bosgarren klausularen arabera, Eusko Jaurlaritzak diru-kopuru bat emango zion finantza-erakundeari, kanpainaren hasieran eskuragarri dagoen diru-laguntzaren zenbateko osoagatik; eta kanpainaren bukaeran, ordea, likidazio osoa egingo litzateke. Diru-laguntza osorik agortu ezean, geratzen den dirua Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuliko zaio.

2010eko otsailean, 315.670 euroko diru-sarrerak jaso ziren, finantza-erakundeak 2009ko «Kultura Bonoa-Bono Cultura» Programaren azken likidazioa egin ondoren eskuragarri geratzen den saldotik etorriak.

Aurreikusita dago ekimenak segida izango duela 2010eko Kultura Bonoa Programaren bidez. Hori dela eta, Kultura Sailak eskatzen du 2009ko programaren soberakinagatik jasotako diru-sarrera gaitzeko, programa hori 2010ean garatzeko behar den kopuruaren zati bat finantzatze aldera.

Horregatik, kredituok gaitu egingo dira dekretu honen bidez, Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruz indarrean dauden lege xedapenen testu bategina onartu zuen irailaren 27ko 1/1994 Legegintza Dekretuko 82. eta 83. artikuluetan ezarritakoari jarraituz.

Ondorioz, Ekonomia eta Ogasuneko eta Kulturako sailburuen proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2010eko irailaren 28an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

4599

DECRETO 250/2010, de 28 de septiembre, por el que se habilitan créditos en el Programa 4513 «Promoción de la Cultura» por ingresos obtenido en el Programa 4511 «Estructura y Apoyo» del Presupuesto de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2010, por importe de 315.670 euros.

Para la puesta en marcha de la iniciativa orientada a la dinamización del mercado de la producción artística y cultural a través de la incentivación de productos culturales en la CAPV durante la campaña navideña 2009-2010, en diciembre de 2009 se suscribió el convenio de colaboración entre el Gobierno Vasco y la entidad financiera UTE-Bilbao Bizkaia Kutxa, Gipuzkoa Donostia Kutxa y Caja Vital Kutxa-Bono Cultura, actuando ésta como colaboradora en el desarrollo y promoción del Programa «Kultura Bonoa-Bono Cultura».

La cláusula quinta del convenio establecía que el Gobierno Vasco efectuaría un ingreso a la entidad financiera por el importe total de la subvención disponible al inicio de la campaña y, al final de la misma, se realizaría una liquidación total. En caso de no agotarse la subvención en su totalidad, el saldo disponible sería devuelto a la Tesorería General del País Vasco.

En febrero de 2010 se obtienen ingresos, por importe de 315.670 euros, derivados del saldo que ha resultado disponible una vez realizada la liquidación final del programa «Kultura Bonoa-Bono Cultura» 2009 por parte de la entidad financiera.

Estando prevista la continuación de la iniciativa mediante el programa Bono Cultura 2010, el Departamento de Cultura solicita la habilitación del ingreso obtenido por el excedente del programa 2009 para financiar parte del desarrollo de dicho programa en el 2010.

Por tal motivo se procede a su habilitación, de conformidad con lo establecido en los artículos 82 y 83 del Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de septiembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes sobre el Régimen Presupuestario de Euskadi.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Economía y Hacienda y de la Consejera de Cultura, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 28 de septiembre de 2010,

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren 2010eko ekitaldiko aurrekontuan kreditu batzuk gaitzea onartzea, gastuen egoera-orri honetan:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
4513	453.01	315.670

Diru-sarreren ondorengo egoera-orrian kopuru bereko diru-sarrerak lortzetik sortu dira kreditu horiek:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
4511	380.00	315.670

2010eko Kultura Bonoa Programaren arloko jarduerak finantzatzeko erabiliko dira funtsak.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko irailaren 28an.

Jarduneko lehendakaria,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

DISPONGO:

Artículo único.– Aprobar en el Presupuesto de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2010 una habilitación de créditos en el siguiente estado de gastos:

Programa	Subconcepto	Euros
4513	453.01	315.670

Este crédito se genera por la obtención de ingresos por el mismo importe en el siguiente estado de ingresos:

Programa	Subconcepto	Euros
4511	380.00	315.670

Los fondos se destinarán a financiar las actuaciones relacionadas con el Programa Bono Cultura 2010.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 28 de septiembre de 2010.

La Lehendakari en funciones,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

El Consejero de Economía y Hacienda,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

La Consejera de Cultura,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.